

KARMEN JAIA KARDABERAZ KALEAN

Martin Idarreta harakinak jasoko du gaur Andrekaleko 'Alkate makila'

■ Martinek Mallu Olano orain arteko 'Alkatearen' eskutik jasoko du makila, etxeko balkoian ■ 12:00etan.

MARTIN Idarreta izango da gaur Kardaberazeko jai eguneko protagonista nagusia. Kaxko Elkartek 'Andrekaleko Alkate izendatuko du eta aginte makila eman.

HARAKINA ETA ARTISTA
Martin Idarretak 78 urte ditu eta bizi osoan harakina izan da. Orain Artola deneko hortan izan zuen harategia. "Andreak asko lagunduta, eh" dio berak. Bere kontura harategia jarri zuen urtean, 1943an, txekorran xerra onena 13 pezetan saltzen omen zen kiloak. Harategia utzi zuenean, 1987an, 1.300 pezetan.

Jubilatu zenean, labana eta lima utzi eta trintxa eta mailua hartu zituen. Martinek egur lan dotore askoak egiten ditu orain: plakak, argizaiolak, figurak... Eta gauzak nola izaten diren! Gaur jasoko duen *Alkate makila* berak diseinatua da, Kaxko Elkartek *Alkate makila*ren ideia ateratu zuenean.

"KALE HORRETAKO AIZATEA NERE MERITUA"
Martin Idarretak badaki zer den Kardaberaz kalean Karmen jaia antolatzea, urte askotan ibilia baita lantegi horretan. "Hasierako festa tanbolina eta Amabirjina izaten zen eta gero txarangak eta herri kirolak hasi ziren" kontatzen du Idarretak. *Alkate makila* jasotzeko adina lan eginagatik ez dio bere buruari halakorik aitortzen: "Esan nahi deten lehenengo gauza da nik ez detela hori merezi. Nere meritu bakarra da kale honetan jaioa eta ofizioa hemen ikasia".

KALEAK ORDAINDUTA
Garai bateko festa jendeak berak ordainduta egiten omen



Martin Idarreta Jaxinta Mendiola emaztearekin, etxeko portalean.

zen eta batzuk ez daude, non-bait, ohitura hori galtzeko. Jaia udaletxeak ordaintzen duelako *hasarretu* egin dira, eta festa kaleak ordaindu behar duela eginen ari dira.

9 SAGARDOTEGI
Martin Idarretak *Andrekaleko* historioari buruzko kontuak ere

esan dizkigu. "Kale honetan 9 sagardotegi ziren lehen" dio. Sagardoa partitzen emakumeak ibiltzen ziren. Idarretak gerra aurrea eta ondorena biak bizi izan ditu. 1932an Estatuak eta Diputazioak goi mailako ikastekak egiteko bekak ateratu zituen, mugatuak. Eta *Andrekaleko* hiruk lortu

EGITARAUA

09:00etan: Meza
09:30etan: Diana
10:00etan: Haur jokoak udalekuetako umeekin.
12:00etan: Txupinazoa eta Martin Idarretak 'Alkate makila' jasoko du
12:00etan: *Gaztelu puzgarriak* Plaza Berrian
18:00etan: karta jokoak, kalean bertan
18:00etan: Haurrentzat txokolata Plaza Berrian.
20:00etan: Sardina jana eta kartetako sari banaketa Plaza Berrian. Ondoren, trikitixa.

zituzten, Gay-Murren bidez. Francoren altxamenduak 6 hildako behintzat utzi omen zituen.

Bernardino Perez *Pasiegito* futbolari internazionala ere kale horretan sortua da.

ETXEEN IZENAK

Kaxko Elkartek pentsatu du etxeak zenbaki hutsean utzi gabe, osteraren beren izenak ematea. Edo, hasteko, izenak biltzea behintzat. Martin Idarretak berak ia 100 etxe, komertzio eta abarren izenak (edo ezizenak) osatu ditu. Udaletxeko eskinatik hasita, hemen batzuk: *Goñi-Benito, Makatxa, Baxilina, Txutxana, Modesta Serorana, Bixargilane, Prontxonia, Txoledona, Manulatxona, Inbiriyan, Paxieguana, Montefriona, Eoskorrana, Polonia, Las Sevillanas, Metrokubikon taberna, kojuania...* Kaxkok zerrenda hori osatu eta kontrastatu egin nahi du. Horretarako Gudarien plazan postu bat jarriko du gaur, jendeak datuak emateko. □

Txozna Batzordeak San Joanetako balorazioa egiteko bilera du gaur

TXOZNEK bilera dute gaur San Joanetan gauzak nola joan ziren baloratzeko. Batzordeko ordezkari batek txozna guztietako jendeari joateko deia egin die.

Bilera Aek-ko lokalean egingo da arratsaldeko zazpietan. □

■ BOLA

Antonio Minerrek Karmen Saria irabazi du

■ Añorgan Karmen Saria jokatu zen atzo eta Antonio Miner ereñotzuarrak ateratu zuen saria, Martin Lizeagarekin despenpatea jokatu. Sei tiraldietan biek 34 brillak botatu zituzten. Despenpatean, Minerrek 17 bota zituen eta Lizeagak 14. Hirugarren Antonio Goenaga gelditu zen (34 brillak) eta laugarren Ibon Miner (32 brillak). □

JUBILATU ETXEA

Suancesera joateko zozketa gaur egingo da

■ Eskurtsioa datorren larunbatean da.

GAUR zozketatuko dira Jubilatutako Suancesera joateko plazak. Zozketa betiko orduan izango da. Eskurtsioa joateko asmoa duenak bertara azaldu behar du. Cantabriako Suances herrira datorren larunbatean joango dira, uztailearen 21ean. Autobusa goizeko 08:00etan aterako da Atsegindetik eta buelta ilunabarrean izango da. □

MAVIA APAINDEGIA

Zure estetika-zentroa Hernanin

- ⇒ DEPILAZIOA: - Hotza - Beroa
 - ⇒ DEPILAZIO ELEKTRIKOA
 - ⇒ MANIKURA
 - ⇒ AURPEGIKO TRATAMENDUAK
 - ⇒ SOLARIUMA (Eskaintza berezia: 10 + 2)
 - ⇒ GORPUTZ TRATAMENDUAK: Presoterapia
- ZURE ESANERA GAUZKAZU EGUN OSOAN!!**
ANIMA ZAITEZ ETA BISITA GAITZAZU!!

Kardaberaz 60 - Tel: 943 55 27 49 - 20120 HERNANI

HATOR
AHOLKULARITZA

Asesoria

Fiskala
Laborala
Kontablea
Administratiboa

HATOR
Aseguruak

Kardaberaz 60
Tel. 943. 55 43 12
20120 HERNANI

USURBILGO HAUR ESKOLA

Haur hezuntzarako 1go zikloa
0-3 urte bitarteko haurrei zuzendua

NON: Kalejar
ORDUTEGIA: 7'30etatik 19'00etara

EGUTEGIA
Astelehenetik ostiralera
irailaren hasieratik uztaile bukaera arte

INFORMAZIOA ETA IZENEMATEA
10'00etatik 12'00etara: Udal liburutegian
18'00etatik 20'00etara: Udal Idazkaritzan
Tel: 655 74 38 48

ZERBITZU PEDAGOGIKOA JANTOKIA OSASUN HEZIKETA ELIKADURA EKIMEN BEREZIAK

San Markosek kartoi bilketarako kontzientziazio kanpaina burutuko du komertzioetan aste honetan

■ Gaur hasi eta aste gutzian zehar 265 komertzio bisitatuko dituzte ■ Kanpainaren helburua, merkatariak kartoiaren bilketa selektiboaren beharraz jabetzea da.

SAN MARKOS Mankomunitateak duela aste batzuk martxan jarri zuen komertzioetako kartoiaren jasotzeko kontzientziazio kanpaina. Kanpaina honetan, Mankomunitatea osatzen duten herrietan, baita koitzean fetxa ezberdinetan, herriko komertzioetatik pasatzen dira, ekintza komertzioetatik sortzen den eta kartoiaren

jasotze eta birziklapenaren beharraz merkatariak kontzientziatzeko. Kanpaina, aste honetan iritxiko da Hernanira.

256 ESTABLEZIMENDU
Aste honetan zehar, San Markoseko 4 *informatzaile-educatzaile*, herriko 256 komertzioetatik pasako dira, merkatariarekin harreman zuzena

izan, eta kartoiaren jasotze eta birziklatzean merkatariak duen garrantzia azaltzeko. Aldi berean San Markosek gogoratu nahi du, ekintza komertzio gehienek botatzeko kartoiaren izaten dutela eta Mankomunitateak hori jaso eta birziklatzeko zerbitzua eskaintzen duela, izena ematen duen merkatariari. □

ALDE ZAHARRA BERRITZEKO OBRAK

Abuztuan dituzte bukatzekoak Kale Nagusia eta Karkaban azpiegitura lanak

■ Lana aurreratuta daramakite ■ Aste honetan karkaba bukatu nahi dute



Langileak oso gustora daude jendeak berentzako duen jarrerarekin.

EZEREN okerririk ez dela, abuztu bukaerarako Kale Nagusia, Karkaba eta plazoleta gaina emateko pronto egongo dira. Hala adierazi dio *Kronikari* obrako ordezkari batek. Obra epeetan jarrita baino azkarrago daramakite eta *Kronikak* jakin duenez enpresak udaletxearen eta obrako injenieroaren zorionak jaso ditu.

Kale Nagusia goian eta barrenean bukatuta dago, eta orain erdiko kale zatian ari dira. Karkaba erdia ere bukatu dute eta beste erdia aste honetan bukatzekoa dute. Gero, plazoleta eta handik beherako puska. □

Kale Hezitzaileek bukatu dute 'Uda gaztea' aisialdi programa

■ Aste honetarako 10 urteko umeentzako antolatuta dute egitaraua.



Uda gaztean ibili diren gaztek, Mainer Sierra Kale Hezitzailearekin.

UMEEK beren balorazioa idatzi eta merienda ederra eginda bukatu da ostiralean aurtengo *Uda gaztea* programa. Batz bestea, 12-13 urteko 10 ume ibili dira bi asteotan: defentsa pertsonala, piragua, arrauna, Xoxokako aterpetxean gaua pasa, mendian orientatzen ikasi, Txuri Urdinen patinatzen ibili, esgrima, tailerrak, eta abar egin dute, goiz eta arratsalde.

Hamabostaldia 12-17 urteko umeentzat izaten da. Baina, iaz ez bezala, aurtun 12-13 urtekoak apuntatu dira. □

ARRAUNA

Hernani-Ubis bosgarren Trintxerpeko ikurriñan

■ Garaipena bertakoentzat izan zen 21,03 ko denborekin ■ B ligako lehen estropada zen.

HERNANI-Ubis traineruak nahiko ondo hasi du aurtengo B liga. Larunbat arratsaldean Trintxerpen jokaturako estropadan bosgarren postua lortu zuen. Garaipena Trintxerpek eskuratu zuen, Pedreñako traineruaren aurretik. Hernani-arek 22 minutu juxtuko denbora behar izan zuten, irabazleek baino 57 segundu gehiago. Guztira 9 traineru izan ziren

Trintxerpen eta hernaniarrek aurretik adinaxe traineru izan zituzten atzetik.

BI ESTROPADA

Datorren asteburuan zita bikoitza du Hernani-Ubisek. Larunbatean Pedreñan eta igandean berriz Pontejosen. B liga honetan Hernani erdi pareko postuetatik gora ibili daiteke eta horretan ahaleginguduko dira. □

TXIRRINDULARITZA

Hernanitik Goizuetara zortzi ordutan lau joan-etorri 'ezetz ta baietz' apustua

■ Hernaniko bi gaztek egin dute ■ Atzo zen jokatzeakoa, baina, eguraldiagatik atzeratu egin dute.

ETAPA luzeak ez dira Tourrean bakarrik korritzen. Hernaniko bi txirrindulari gaztek festa polita jarri dute: Hernanitik Goizuetara 8 ordutan lau aldiz joan eta etorri baietz eta ezetz. Baldintza bakarra, bakarrik joatea. Atzetik kotxea izango du laguntzeko eta abituallamendua ere nahi duen guztia, baina, bizikletan bakar-bakarrik lau bueltetan.

200 kilometro dira Martindegiko gazteak 8 ordutan egin beharko dituenak. Eta gutxienez, 25 ko median. Txirrindularia ondo entrenatua dago: *Quebrantahuesos* egin du, eta auzoko festetan ia 200 km-ko beste karrera fuerte bat ere bai.

Goizean goiz hasi eta eguerdirako bukatzea da plana. Egingo ote du? Hasi apustuak egiten. □

LAGUNTZAILE IZAN NAHI DUT

Markatu X batez zure aukera 5.000 pta
 25.000 pta
 pta

HERNANIKO
kronika

Izena _____ Abizenak _____

N.A.N / N.I.F _____ Helbidea _____

P. kodea _____ Herria _____ Herrialdea _____ Tel. _____

Banku edo aurrezki kutxa _____ Titularra _____

Titularraren helbidea _____

Entitateak Sukurtsala Kontua

KRONIKAREN kontura diru-sarrera: EUSKADIKO KUTXA 3035 0025 81 025007767.2
KUTXA 2101 0041 01 001096804.8

BONOA UZTEKO: *Kronika, Dobera, Pana, Iruretagoiena, Konde eta Zinko Enean.*
Nahi izanez gero telefonoz (943 33 08 99), postaz (Larramendi 11) edo E-maillez (kronika@topagunea.com) egin dezakezu.

Bai, ezta?

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak:
943 550093
▶ Udaltzaingoa:
943 333288
▶ DYA:
943 464622
▶ Anbulatorioa:
943 557750
▶ Jokalari anonimoak
943 331103

✚ FARMAZIAK

▶ Egunez: Bulnes
Etxeberri - Florida
☎ 943 557738
▶ Gauez: Bulnes
Etxeberri - Florida
☎ 943 557738
✚ ASTEARTEA
▶ Egunez: Sagastiberri
Urbietan 7
☎ 943 552941

▶ Gauez: Sagastiberri
Urbietan 7
☎ 943 552941

✚ ASTEAZKENA

▶ Egunez: Chucla
Kardaberaz 48
☎ 943 551793
▶ Gauez: Ansa
Andoain G. Ondarreta
☎ 943 591302



Hernaniko Kronikaren laguntzaile:

ORAUNE PROMOCIONES



**GESTORIA
ZULAIKA
ASESORIA**

Kardaberaz 68 - Tel. 943 55 14 94 - 55 19 12 - Faxe 943 55 11 30